



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

INGELESAREN JABETZE PROZESUA HAUR

HEZKUNTZAN:

UNITATE DIDAKTIKO BATEN PROPOSAMENA

Egilea: **Alberdi Olaziregi, Manex.**

Zuzendaria: **Reguero Ugarte, Urtzi.**

Gasteiz, 2018ko Ekainak 1

Laburpena

Gradu amaierako lan honen gaia Haur Hezkuntzan ingelesaren jabetze prozesua da. Lan honen helburua Haur Hezkuntzako bigarren zikloan jabetze prozesua era eraginkor batean ahalbidetzen duen Unitate Didaktiko baten proposamena egitea da. Jomuga honetara iristeko, lana hiru zati nagusietan banatuta dago. Lehenengo zatian haurren hizkuntza jabetzearen, bai ama hizkuntza bai atzerriko hizkuntza kontuan harturik, prozesuaren funtzionamendua eta hau baldintzatzen duten faktoreak ikertzen dira. Bigarren zatia atzerriko hizkuntzaren jabetze prozesua ahalbidetzen duten metodologia, estrategia eta baliabide didaktikoen aurkezpen bat da. Hirugarren eta azkeneko zatia aurreko ataletan hausnartutakoa kontuan hartu ondoren egindako Unitate Didaktiko baten proposamena da.

Hitz gakoak

Haur Hezkuntza, Atzerriko Hizkuntza, Ingelesa, Jabetze Prozesua, Unitate Didaktikoa.

Aurkibidea

1. Sarrera
2. Lanaren justifikazioa
3. Metodologia
4. Ikergaiaren egoera
5. Esparru teorikoa
 - 5.1. Hizkuntzen irakaspena haur hezkuntzan
 - 5.1.1. Ikasketa prozesuaren ezaugarri orokorrak haur hezkuntzan
 - 5.1.1.1. Ama hizkuntzaren jabetze-prozesua
 - 5.1.1.2. Atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesua
 - 5.1.2. Atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesua baldintzatzen duten faktoreak
 - 5.2. Atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesua baldintzatzen duten faktoreak
 - 5.3. Haur hezkuntzan ingelesaren jabetza-prozesurako metodologia, estrategiak eta baliabideak.
 - 5.3.1. Ingelesaren jabetze-prozesurako metodologia haur hezkuntzan
 - 5.3.1.1 Metodologia komunikatiboa
 - 5.3.1.2 Jardueretan zentratutako lana
 - 5.3.1.3 Proiektuen bidezko lana
 - 5.3.2 Ingelesaren jabetza-prozesua errazteko estrategiak
 - 5.3.3. Ikaskuntzarako baliabide didaktikoak
6. Haur hezkuntzan ingelesaren jabetza-prozesuaren optimizaziorako programaketa
 - 6.1. Programaketa eratzeko elementu klabeak
 - 6.2. Unitate Didaktiko baten proposamena
7. Emaitzak eta ondorioak
8. Erreferentzia bibliografikoak

Eranskina I

1.Sarrera

Haur Hezkuntzako atzerriko hizkuntza bat ikasteko garai garrantzitsuenetariko bat da, ama hizkuntza ikasteko erabiltzen diren mekanismoak atzerriko hizkuntza bereganatzeko erabili baitaitezke. Historian zehar, Espainiako Hezkuntza sisteman eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan, egon diren aldaketa legislatiboek atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren ezarpena oztopatu dute Haur Hezkuntzan. Gaur egun 237/2015 Dekretuak horrelaxe dio:

“Elebitasuna bermatzea da euskal eskolaren erronketako bat, baina, horrez gain, pertsona eleaniztunak hezi behar ditu, atzerriko, gutxienez, hizkuntza bat jakingo dutenak, maila nahikoan, Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntza amaitzean. Haur Hezkuntzan, pertsonen hizkuntza-bizipenak familiako hizkuntzatik abiatzen direla nabarmentzen du ikuspegi eleanitzak, bi hizkuntza ofizialak ikasi, eta, kasuan kasu, lehen atzerri-hizkuntza ikasi arteko bideari ekinez.”

Lan honen nahia garai honek atzerriko hizkuntza bat bereganatzeko duen garrantzia azpimarratzea da. Honetarako, beharrezkoa da aztertzea Haur Hezkuntzan atzerriko hizkuntza bat ikasteko erabili daitezken metodologia, estrategia eta baliabideen baliozkotasuna honek determinatuko baitu atzerriko hizkuntzen garapen eta ulermena ondorengo zikloetan. Hori dela eta, argi eduki behar dira atzerriko hizkuntza baten jabetze-prozesuan eragina duten faktoreak, Haur Hezkuntzako haurrentzako eraginkorra den metodologia bat eratzeko.

Lan honen bidez, Haur Hezkuntzako bigarren zikloan Ingelesa ikasteko erabiltzen diren metodologia eta baliabideak aztertu nahi dira, Ingelesaren jabetze-prozesuan optimoenak direnekin Unitate Didaktiko proposamen bat eratzeko.

2. Lanaren justifikazioa

Haur Hezkuntzaren helburu nagusia ikasleen garapen zuzenean laguntzea da, hala nola bizitza sozial, kultural eta beste herrialdeen ulermen eta kolaborazioan parte hartzeko prestakuntza dela dio Watterlierrek (2007, 12.or). Helburu horrek bat egiten du haurren harreman eta adierazpen gaitasunak sustatzeko beharrarekin, ama hizkuntzaz gain atzerriko hizkuntzak ezagutzea kultura ezberdinen arteko ulermena eta bakerako heziketa bultzatzen baititu.

Atzerriko hizkuntza baten jabetze-prozesua Haur Hezkuntzan hasia gaur egungo behar kultural eta aldaketa sozialei erantzuten die eta honek duen garrantziaz jabetzeak bultzatu du egungo Hezkuntza Sistema garai goiztiarretik ekimen honi hasiera ematea.

Hau guztia kontuan izanik, lan honen bidez metodologia apropos baten erabilpenaren garrantzia azpimarratu nahi da, ikasleen ezaugarriak eta bigarren hizkuntza baten jabetze-prozesuan parte hartzen duten faktoreak kontuan hartuz. Azterketa honen emaitzak islatzen dituen Unitate Didaktiko bat sortzea baita helburu.

3. Metodologia

Gradu amaierako lan honen helburua Haur Hezkuntzako bigarren zikloko haurrentzako aproposa den ingelesezko Unitate Didaktiko bat aurkeztea da.

Nire xedea Haur Hezkuntzan atzerriko hizkuntza baten jabetze prozesua eta hau baldintzatzen duten faktoreak hausnartzea da. Azterketa honen asmoa jabetze prozesua errazten duten metodologia, estrategia eta baliabideak identifikatzea da. Ikerketa honen jomuga ingelesaren jabetza prozesurako optimoa den Unitate Didaktiko bat aurkeztea da.

Goian aipatutako auziei erantzun bat emateko ikuspegi teoriko-praktiko batetik hurreratu naiz gaira.

Analisi kualitatibo baten bidez, atal bakoitzak aurkezten zituen arazo epistemologikoak argitzen joan naiz, arazoaren mamiak azterketa zehatz bat eskatzen bai du, baina lan honen ezaugarriak direla eta arakatzea sakona baina mugatua izan da.

Jasotako emaitza teorikoak ingelesaren jabetza prozesua era optimo batez ahalbidetuko lukeen Unitate Didaktiko batean islatu ditut.

4. Ikergaiaren egoera

Azken hamarkadetan, ingelesaren ikaskuntza berebiziko afera bilakatu da globalizazioaren zabalkuntza eta kultur arteko harremanak direla eta.

Ingelesa hizkuntza unibertsaltzat Campbell eta al-ek (1983, 35.or) definitu zuten; ingelesa bere arlo linguistiko eta soziolinguistikoan bai ama hizkuntzatzat dutenen artean bai ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntzatzat dutenen artean komunikazio tresna bezala bai da erabilia.

Adin goiztiarretik atzerriko hizkuntza bat ikastearen garrantzia Mayor Sanchezek (1989, 138.or) identifikatzen du, Haur Hezkuntzako garaia berebizikoa da hizkuntzaren ulermen eta ekoizpenerako. Bestalde, ingelesarekin kontaktu goiztiar batek bizitza guztian zehar iraungo duen ingeles hizkuntza eta kulturarekiko interesa pizteko funtsezko oinarria izan daiteke (Dunn, 1985, 1.or).

Ingelesaren jabetze prozesua Haur Hezkuntzako garaian hastearen hurrengo onurak nabarmentzen dituzte Tragante eta Muñozek (2000, 86.or): atzerriko hizkuntzaren erabilpenarekiko motibazio positiboa sortzen du, hizkuntza berriak ikastea zaila ez denaren pertzepzioa garatzen da, norberaren gaitasun linguistikoan konfiantza areagotzen da, ama hizkuntza ez den hizkuntzengan interesa pizten da eta beste herrialde eta kulturekiko enpatia hazten da.

Euskal Autonomi Erkidegoaren kasuan, Haur Hezkuntzako curriculum dekretuak, 237/2015 Dekretua, “atzerriko hizkuntza bat komunikazio-xedez erabiltzen hastea, ikasgelako egoera normaletan parte hartzeko” (39.or) eta “atzerriko hizkuntzan egiten diren ahozko elkarrizketetan parte hartzea, komunikazioko errutina eta egoera arruntetan” (40.or) ezartzen ditu helburu bezala.

5. Esparru teorikoa

5.1. Hizkuntzen irakaspina Haur Hezkuntzan

Beharrezkoa da atzerriko hizkuntza bat irakatsiko duen irakasleak ama hizkuntzaren jabetze-prozesua ezagutzea, nahiz eta hau atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesuaz ezberdina izan. Baina funtsezkoa da Haur Hezkuntzan ikasleek beraien ama hizkuntzan egiteko gai diren gauzak ezagutzea, atzerriko hizkuntza bat ikasten hasi baina lehen.

Ez lioke, beraz, lehenengo kontaktu honetan ikasleari eginarazi bere ama hizkuntzan egiteko gai ez den izaera fonologiko, morfologiko, sintaktiko-semanticiko edo pragmatiko duen inolako praktika linguistikoari, ama hizkuntzaren erabilpen gaitasuna ez baita inoiz izango bigarren hizkuntzarenaren berdina nahiz eta bigarren hau urteetan zehar ikasi izan (Yule, 1998, 210.or). Hori dela eta, irakasleak oso garbi eduki behar du zein den bere ikasleen eboluzio linguistikoa, estrategiak eratzeko garaian eta beharrezko diren metodoak erabiltzeko ikasleek bigarren hizkuntzan bereganatutako gaitasunak ama hizkuntzan dituztenekin berdin ditzaten.

5.1.1. Ama hizkuntzaren jabetze-prozesua

Jaiotzez, edozein gizakik bere ama hizkuntza ikasteko gaitasun naturala du; ikasle guztiek hizkuntza bat ikasteko jarraibide berberak dituztenez, ama hizkuntza ikasteko berezko gaitasun bat dagoela argi ikusten da aurkitzen diren komunikazio testuinguruarekin interakzio jarrai bat dagoen bitartean. Ez dago osagai genetiko edo hereditario bat ama hizkuntza edo bigarren hizkuntza baten jabetza-prozesuan laguntzen duena, biak komunikazio egoera berezi eta zehatzetan eskuratzen baitira, haurrari edo ikasleari entzun, ulertu eta komunikatzeko asmoz soinuak egitea ahalbidetzen zaionean (Kincheloe, Steinberg eta Gresson, 1996, 17.or).

Garrantzitsua da irakaslearen ikuspuntutik Murado Bousoren (2010) hurrengo koadroa kontuan hartzea. Bertan 0-6 urte bitartean haurrek dituzten ama hizkuntzaren garapen etapa ezberdinak eta hauen ezaugarri linguistikoak agertzen dira.

Hizkuntzaren garapen etapak	
Adina	Ezaugarriak
0-5 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> -Eztarriarekin soinuak egiten ditu. -Plazera eta minarekin harremana duten soinuak egiten ditu (parra, negarra, kexa). -Hitz egiten zaioenean soinuak egiten ditu.
6-12 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> -Ezezkoak ulertzen ditu. -Zizelkatzen du. -Aita eta ama bezalako hitzak esaten ditu, nahiz eta esanahia ez ezagutu. -Keinuekin komunikatzen saiatzen da. -Hainbat soinu errepikatzen saiatzen da. -Lehenengo hitza esaten du.
12-18 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> -Ez ahozko komunikazioaren bidez galdera errazak erantzuten ditu. -Bi edo hiru hitz erabiltzen ditu pertsona edo objektu bat adierazteko. -Hitz errazak imitatzen saiatzen da.
18-24 hilabete	<ul style="list-style-type: none"> -Bokalak eta “n”, “m”, “p” eta “j” kontsonanteak esaten ditu erratu gabe. -50 hitz inguruko hiztegia du. -Jaki ezagunenak eskatzeko gai da hauen izena erabiliz. -Animalien soinuak egiten ditu. -Bi hitz bateratzen eta izenordainak erabiltzen hasi da.
2-3 urte	<ul style="list-style-type: none"> -Espazioarekin harremana duten kontzeptu batzuk erabiltzen hasi da. -Izenordainak ezagutzen ditu. -Hitz deskriptiboak erabiltzen hasten da. -250-900 hitz inguruko hiztegia du. -Hiru hitzeko esaldiak sortzeko gai da. -Galdera errazak erantzuteko gai da. -Lehenengo galderak egiten hasi da. -Pluralak eta lehenaldia erabiltzen hasi da.

3-4 urte	<ul style="list-style-type: none"> -Objektuak familietan elkartzeko gai da. -Koloreak ezberdintzen ditu. -Alfabetoko soinu guztiak erabiltzeko gai da, nahiz eta zailenetan arazoak eduki. -Kontsonanteak erabiltzen ditu hitz guztietan. -Egunerokotasuneko hainbat objektu deskribatzeko gai da. -Hizkuntzarekin ongi pasatzen hasten da. -Galdera errazei erantzuten die. -Esaldiak errepikatzeko gai da.
4-5 urte	<ul style="list-style-type: none"> -Galdera zailak erantzuteko gai da. -Bere hizkera ondo ulertzen da, nahiz eta oraindik nahastu egiten den hitz zail eta luzeak esaterako garaian. -1500 hitz inguruko hiztegia du. -Lehenaldiko forma irregularrak erabiltzen hasi da. -Familia edo kategoria bereko elementuak aipatzeko gai da. -<i>Zergatik?</i> motako galderak erantzuteko gai da.
5 urtetatik aurrera	<ul style="list-style-type: none"> - 2000 hitz inguru ulertzeko gai da. -Denbora lerroak ulertzen ditu. -Hiru aginduko sekuentzia bat betetzeko gai da. -Elkarrizketa bat eduki dezake. -Zortzi hitz edo gehiagoko esaldiak egin ditzake. -Sormena erabiltzen du istorioak asmatzeko. -Objektuak deskribatzeko gai da.

1 taula: Hizkuntzaren garapen etapak (Murado Bouso, 2010,15-16)

Autorearen arabera, prozesu hau ama hizkuntzaren jabetze-prozesuan modu natural eta inkontziente batean gertatzen den bezala, atzerriko hizkuntza baten jabetze-prozesuan gertatzen da. Hori dela eta, aurreko taula erreferentzia egoki bat izan daiteke

irakasleentzat atzerriko hizkuntza erakusteko ekintzak programatzeko eta metodologia eta materialak diseinatzeko garaian Haur Hezkuntzan.

5.1.2. Atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesua

Atzerriko hizkuntza baten jabetze prozesuan gertatzen denaz jabetzeko kontuan hartu behar ditugu hizkuntza bat osatzen duten plano ezberdinen ezaugarriak: fonologikoa, morfologikoa, semantikoa eta sintaktikoa.

Ikuspuntu fonologikotik ikusten dugu Haur Hezkuntzako ikasleek gaitasun handiagoa dutela soinuak hauteman eta ulertzeko hauek zuzen errepikatzeko baino, ama hizkuntzan gertatzen den bezala, baita fonemen ahoskera sinplifikatzeko ere.

Hizkuntzaren plano honetan orduan, irakaslearen helburua informazioa pausaz eta intonazioz betetako modu zehatz eta mantso batean ematea da, ikasleriaren jabetze-prozesua errazteko. Ez baitugu ahaztu behar haurrak bere ama hizkuntzan ikasten duen lehenengo gauza intonazio patroiak direla, edozein soinuren identifikazio edo errepikapen baina lehen (Kincheloe, Steinberg eta Gresson, 1996, 4.or).

Morfologiari dagokionez, ama hizkuntzaren garapen prozesuan 2-3 urteko tartean da haurrek plural eta lehenaldi formak erabiltzen hasten direnean. Atzerriko hizkuntzan, ordea, ingelesez ikasiko luketen lehenengo gauza *-ing* forma progresiboa izango zela, eta ondoren pluralak eta genitiboa (Luque, 2002, 25.or)

Semantikari begira, “semantikaren gain generalizazioa” deritzon prozesua errepikatzeko joera dago bai ama hizkuntza ikastean bai atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesuan hiztegi faltaren ondorio bezala. Gainera, atzerriko hizkuntza ikasteko garaian, hiztegia murriztua eta sinplifikatua izateagatik bereizten da; ingeles, adibidez, “pee-pee” (pixa) eta “choo-choo” (trena) bezalakoak izaten dira erabiliak irakaslearengatik ikasleen atentzioa bereganatzeko eta hauen ulermena bermatzeko. Hau guztitik ondoriozta dezakegu ez dela egokia hiztegi berriz ikasleak gainkargatzea.

Azkenik, sintaxiari erreparatuz, ikasleak orainaldia erabiltzen hasten dira gutxika gramatikalki konplexuagoa den sintaxi bat garatzeko. Luqueren (2000, 182-211.or)

ustez garapen honen arrazoia ikasleak hizkuntzaren alde diskurtsibo eta komunikatiboetan zentratzeko joera dutela da, alde gramatikalean zentratu beharrean. Garapen honetan, 2-3 urteko ikasleek bi-hiru hitzeko esaldiak egiteko gai dira, baina kopuru hau zortzitik gorakoa bihurtzen da bost urteetatik aurrera.

Prozesu linguistikoaren ezagutza garrantzitsua da atzerriko hizkuntza baten jabetze prozesua pertsona oroaren garapen psikologiko eta mentalarekin lotuta dagoen prozesu mantso bat bai da (Murado Bouso, 2010, 18.or).

5.2. Atzerriko hizkuntzaren jabetze-prozesua baldintzatzen duten faktoreak

Ama hizkuntza eta atzerriko hizkuntza ikasteko garaian kontuan hartu behar diren eta aurreko ataletan aipatu ditugun ezaugarriez gain, beste faktore batzuk ere kontuan hartu behar dira Haur Hezkuntzan: adimena, gaitasuna, izaera, motibazioa eta adina.

Adimena arazoak identifikatzeko, aztertzeko, ulertzeko eta irudimenez konpontzeko ahalmen bezala definitu daiteke eta Howard Gardenerren askotariko adimenen teoria (1983) kontuan hartzen badugu, gizakiok era ezberdinetan garatzen diren zortzi adimen mota dauzkagu. Hau dela eta, irakasleek ariketa eta jolas ezberdinak prestatu beharko lituzkete ikasleek berain adimen mota guztiak garatu ahal izateko. Adibidez, gorputzaren atalak ikasteko garaian gorputz espresioa nagusitzen den ariketa baten bidez adimen zinetetiko, espaziala eta linguistikoa landuko ziren aldi berean.

Ikaslearen izaera berebizikoa da atzerriko hizkuntzetan komunikazio kompetentzia jabetzeko garaian, gehien bat Haur Hezkuntzako ikasgela batean, ikasleek momentu hortan bai daude beraien izaera garatzen. Horregatik, irakasleek ikasleen arteko konfiantza errazten duten eta denen parte hartzea bermatzen duten ariketak eta jolasak prestatu behar dituzte.

Kontuan hartzeko beste faktore bat irakasleek ikasleen artean egiten duen motibazio ekarpena da, Haur Hezkuntza garaian ikasleek erraztasun handia bai dute jardueratik deskonektatu eta itzuri egiteko. Motibazioa altua bada, ikasleek azkarrago lortuko

dituzte programaketak markatzen dituen helburuak; irakasleak metodologia eraginkor bat erabili behar du material eta ariketa ezberdin askorekin ikasleen arteko motibazioa sustatzeko. Adibidez, mugimendu fisiko handia eskatzen duten abesti oso erritmikoen erabilpena edo ikasleen interesen barruan sartzen diren gaiekin harremana duten eta toki ezberdinetan (ikasgela, patioa...) aurrera eramane daitezken jarduerak.

Bukatzeko, ezin dugu ahaztu adina funtsezko faktore bat dela bizitzako lehenengo urteetan burmuinak disposizio handiagoa duelako hizkuntzak ikasteko. Lehenengo urteak erabakigarriak direnez, Haur Hezkuntza garaiari hizkuntzaren ulermen eta produkzioan duen garrantzia aitortzen zaio gaur egun (Mayor Sanchez, 1989, 138.or).

5.3. Haur hezkuntzan ingelesaren jabetza-prozesurako metodologia, estrategiak eta baliabideak.

5.3.1. Ingelesaren jabetze-prozesurako metodologia haur hezkuntzan

5.3.1.1 Metodologia komunikatiboa

Haur Hezkuntzako etapan ahozketasuna eta esanahien negoziaketa lantzea premiazkoa denez, metodologia komunikatibo eta dialogikoaren aldeko apustua egitea komenigarria da. Hizkuntza baten jabetze prozesua nahitaez marko komunikatibo baten barruan txertatua izan behar da (Lopez Perez, 2009, 60.or)

Helburua soilik gaitasun linguistiko lortzea ez denez, egoera dialogikoak eta komunikaziorako baliabideak beharrezkoak dira; ipuinak, ikasleek partekatzen dituzten gertaerak, galdera-erantzunak... Egoera komunikatiboetan ikasleek baliabide linguistiko eta paralinguistiko ezberdinak (intonazioa, erritmoa, etenak, ahots indarra...) erabiltzen baitituzte.

Krasehn eta Terrellek (1983) proposatzen duten "Natural Approach" edo ikuspegi naturala egokia litzateke kasu honetan, atzerriko hizkuntzaren erabilpen komunikatiboa era natural batean oinarritzen bai da. Honek ikaslearen jabetze prozesua errazten du,

lehenengo ulertzen uzten bai dio eta gero presiorik gabe bere burua adieraztera bultzatzen bai du. Haurraren protagonismoa eta rol aktiboa berebizikoa da kasu honetan, modu innato batean ulertu eta ikasi egiten bai du atzerriko hizkuntzari esposatua dagoenean (Martin Sanchez, 2009, 65.or)

Lopez Perezek (2009, 60-61.orr) hurrengo oinarriak bereizten ditu metodologia komunikatiboan:

-Bi mintzaide egon behar dira gutxienez.

-*Information gap* deritzona eman behar da: mintzaide batek beste mintzaideak ez dakien zerbait jakin behar du.

-Informazio transferentzia egon behar da mintzaideen artean.

-*Task Dependency Principle*-aren arabera, jardueren helburuak argiak eta zehatzak izan behar dira eta bizitza errealeko egoeren ahalik eta antzekotasun handiena eduki.

-*Jigsaw Principlea* bete behar da: mintzaide ezberdinek ematen duten informazioarekin joaten da diskurtsoaren koherentzia eratzen.

Beraz, atzerriko hizkuntzaren jabetze prozesua ahalik eta eraginkorra izateko eta murgiltze linguistikora gerturatzeko, irakasleak atzerriko hizkuntza honetan hitz egingo du momentu oro ahalik eta errekurtsu linguistiko eta extralinguistiko gehien erabiliz, ikasketa esanguratsua ahalbidetzeko (Morris eta Segura, 2003, 198.or)

5.3.1.2 Jardueretan zentratutako lana

Jardueretan zentratutako lana metodologia komunikatiboaren eremuaren barruan txertatzen da.

Metodologia honetan ikaslea bihurtzen da jabetza prozesuaren erdigunea: bera da protagonista eta arduraduna, atzerriko hizkuntza bat ikasteko garaian konpetentzia komunikatiboa landuko duena.

Garcia, Prieto eta Santosek (1994,71-72.orr) diote jarduerak gai baten inguruan egon behar direla antolatuak eta atzerriko hizkuntzaren jabetze prozesuan bi funtsezko osagarri izango dituztela: linguistikoak eta tematikoak. Era global eta zikliko batean

helduak izango dira, zeharka, jarduera konkretuak egiteko garaian beharrezkoak izango bai dira.

Jardueretan zentratutako lana efektiboa eta ordenatua izateko proiektuen metodologiaren bidez inplementatzen da.

5.3.1.3 Proiektuen bidezko lana

Proiektuak, metodologia komunikatiboa eta jardueretan zentratutako lana uztartzen dituen lan egiteko metodologia mota bat dira. Hezkuntza mota honen helburua ikasleek era autonomoan ikastea da; beren pentsamendua antolatzen ikasiko dute eta haien interes eta esperientzian oinarritutako hezkuntza denez, jakin-mina pizten da.

Parrak (2011, 102.or) proiektuak bizitza errealeko arazo bat ebazteko jarduera multzo bezala definitzen du. Arazo egoera batetik abiatzen dira proiektuak eta egoera honi konponbide bat ematera eramango gaituzten ekintzetan banatzen da proiektua. Arazo egoera horrela definitzen du Berritzegune Nagusiak:

“Arazo-egoerak planteatzen dizkiegunean, ikasleek, banaka edo taldeka, informazioen multzo bat antolatu behar dute, testuinguru baten barruan, zeregin jakin bat egiteko, non ez baita oso begi-bistakoa aldeztatik zein den irtenbidea.

Ariketa konplexu mota bat da, oztopo bat aurkezten duena, erronka bat. Hura gaituz gero, ikasleek gauza berriak ikasiko dituzte. Kontua da ikasleek arazo-egoera horren irtenbidea aurkitzea, testuingurutik kanpoko diziplina-edukiak saihestuz.

Azken finean, arazo-egoera irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren abiapuntua da, bai eta konpetentziak ebaluatzeko oinarria ere.”

Jabetze prozesua esperientziaren bidez ematen da; *learning by doing*. Gertakari bat izatea helburu bezala ikaslea motibatzen eta parte hartzera bultzatzen duten espektatiba batzuk sortzen ditu (Acaso, 2013, 160-162.or). Helburu hau lortzeko jarduera ezberdinak proposatu behar dira, gaitasunak era global eta erakargarri batean landuz (Parra, 2011, 120.or).

Lan proiektuetako parte hartzaileek, irakasleek zein ikasleek, beraien rola aldatu beharko dute. Batetik, ikaslea aktiboa izango da, erabakiak hartzen ikasiko du eta bere ikasketa prozesuaren kontrola izango du. Bestetik, irakasleek, gidari papera bete beharko dute tradizionalki izan duen paper zentrala alde batera utziz: lana erraztuko die ikasleei, organizazio lanak egingo ditu, ikasleak animatu eta estimulatuko ditu eta ariketak monitorizatu eta bideratuko ditu momentu oro berak jarraitzen duelako arduraduna izaten (Garcia, Prieto eta Santos, 1994, 73.or)

Lau proiektu mota bereizten dituzte Gutierrez eta Romerok (2014, 170.or):

- Sorkuntza proiektuak: Azken emaitza zerbaiten elaboraketa da (aldizkari bat, poster bat).
- Gozamen proiektuak: Jarduera bat gozatzea da azken emaitza (festa bat, irteera bat).
- Arazo ebazpen proiektuak: Auzi baten irtenbidea da azken emaitza.
- Ikaskuntza espezifikoko baten jabetze proiektuak: Gauza konkreturen bat ikastea da helburua,.

5.3.2 Ingelesaren jabetza-prozesua errazteko estrategiak

Estrategiak irakasleak modu hausnartzaile eta flexible batean ikasleen ikasketa esanguratsua bultzatzeko erabiltzen dituen prozedura eta teknika ezberdinak dira (Díaz Barriga eta Hernández Rojas, 2010, 180.or).

Modelaketa egokitzaila, argi eta esplizitoaren estrategia atzerriko hizkuntzaren murgilketa linguistikoaren prozesuaren barruan txertatzen da; hau da, irakaslea saio guztian zehar ingelesez hitz egitea. Modelaketa lau gaitasun komunikatiboak estimulatzeko era bat da: ahozkoa, entzumena, idazmena eta irakurmena. Fonetika eta erritmoan enfasia egiteaz gain, komenigarria da moldaketak egitea irakaslearen ahozko produkzioan hurren ulermena errazten duen erregistro batera (Mayoral, 2016, 120-121.orr)

Erreproduzio linguistikoak aurkezpen, errepikaketa edo imitazioa inplikatzeko duten ariketei men egiten die. Estrategia honek lan memoristikoa exijitzen du eta hurrek hitz solteak edo atzerriko hizkuntzaren edozein estrukturen erreproduzioa ematea du

helburu. Hainbat momentu eta esparruetan eman daiteke; zeharka, erantzun, galdera edota aginduak ematerakoan, edota zuzenean, abestiak edo flash cardetan jartzen duena errepikatzeko garaian, haurrak erreproduzitzen du eta horrela hiztegi berria ikasteaz gain, aurretik ikasitakoa errepasatzen du (124.or).

Mayoralek (128.or) seinalatzen du ekoizpen linguistikoaren estrategiak haurra atzerriko hizkuntzan mintzatzera bultzatzen duten ariketa guztiak multzokatzen dituela, erreprodukzio edo errepikapen soiletik harantzago doanean: lengoaiaren elementu ezberdinak hartu eta ekturktura ez pre-formulatuak diren ideiak azaltzen dituenan. Honetarako, beharrezkoa da irakasleak atzerriko hizkuntzaren erabilpena era natural batean ahalbidetzen duten esparruak sortzea.

Estrategia gisa Total Physical Response edo Gorputzaren Erantzun Osoak, zentzu bat baina gehiago edo gorputz osoaren erabilera eskatzen duten ariketak barne hartzen ditu. Estrategia honek gorputzaren mugimendua eta ahozko ekoizpena bateratzen dituzten ekintza eta jarduerak sustatzen ditu atzerriko hizkuntza ikasteko garaian (132.or)

Jolas eta abesti zuzenduen strategiaren mamia izenean bertan topatu dezakegu: helburu pedagogiko espezifikokoak dituzten jolas eta abestien erabilpenean datza. Mayoralek (135.or) dioen bezala, abestiak eta jolasak kontzeptu berriak ikasteko edo aurretik ikasitakoak errepasatzeko erabiltzen dira.

Azkenik, elkarrizketa motz eta esanguratsuen estrategia dugu: bizitza errealeko egoerak oinarri bezala erabiliz, haurrek atzerriko hizkuntza era natural batean erabiltzeko aukera dute (137-138.or).

5.3.3. Ikaskuntzarako baliabide didaktikoak

Aurreko sailean aipatutako estrategien ildo jarraituz, hainbat baliabide didaktiko erabili daitezke haurren ingelesaren jabetze prozesua errazteko.

Alde batetik ipuinak dauzkagu; aukera handiak ematen dizkigun baliabidea dudarik gabe. Ipuinak erakargarriak dira haurrentzat, narrazio laburrak izanik hauen interesa

piztu eta epe labur batez mantentzea ahalbidetzen dutelako. Ramon eta Vadillok (2007, 14.or) dioten moduan haurren nortasuna modu integral batez heltzeko aukera ematen dute; hauen adimen interpersonala eta intrapersonala landu egiten da emozioak kudeatzeko aukera bikaina bai da. Horretaz gain, haurren ahozko adierazmen eta adierazmen plastikoa bultzatzen du: ipuinak dramatizatu eta koloreztatu daitezke.

Ipuin baten dramatizazioaren bidez atzerriko hizkuntzaren fonetikara gerturatu daitezke haurrak: ahoskera argia eta intonazioaren zainketa garrantzitsuak dira. Bide batez, esaldi sinpleen errepikapenari eta keinuei esker hiztegi berria ikasi eta barneratzeko esparru aproposa dira.

Klasean landutako ipuinak antzezteko aukera ere badago. Antzerkiaren bi onura identifikatzen ditu Selva Lopezek (2010, 20-21.orr): parte hartze kolektiboa eta hizkuntzaren garapena.

Hizkuntzaren garapena gorputz-adierazmen eta adierazmen plastikoan banatu dezakegu. Gorputz-adierazmenaren bidez, haurren autoestimua eta autoirudiaz gain, motrizitatea landu egiten dute haurrek. Adierazmen plastikoa antzerkirako dekoratu eta moztuzkoen prestakuntzan islatzen da. Haurrak antzezten edo antzerkirako beharrezkoak diren esku-lanak egiterakoan, era natural batez ingelesa erabiltzeko esparru erlaxatu bat dute beraien eguneroko bizitza eta ekintzetan atzerriko hizkuntza integratuz.

Berdin gertatzen da antzezlan batek eskatzen duen talde-lanean, haurren gizarteratzea bultzatzeaz gain ingelesaren oinarrizko ezaugarrien, bereziki galdera eta aginduen, erabilera ahalbidetzen bai du.

Ipuin bat koloreztatzea hizkuntza idatzira hurbiltzeko era bat izan daiteke, haurren gaitasun irakurlea zeharkako modu batez bultzatuz.

Asanbladak aproposak dira ahozko hizkuntza bultzatzeko, genero diskurtsibo arloaren barruan kokatzen bai dira. Sanchezek (2008, 198-199.orr) asanbladan lengoaiaren bi dimentsio bereizten ditu asanbladan. Alde batetik dimentsio esplizito bat du genero diskurtsiboaren barruan kokatua dagoenez bere helburua hizkuntzaren erabilera bai du helburu, eta bestalde dimentsio implizito bat; ezagutza eraikitzen bai da asanbladako

partaide guztien artean eta gizartean bizitzeko beharrezkoa behar diren hainbat balore etikoak landu egiten bai dira.

Aho hizkuntza eta talde gizarteratzea lantzen dira baliabide honi esker: benetako testuinguru batean haurrak atzerriko hizkuntzan hitz egiteko aukera du besteen iritziak errespetatu eta txandaka hitz egitera ohitzen den bitartean (225.or). Asanbladek esperimintatzeko eta autonomia lantzeko ematen dituzten aukera azpimarratzekoak dira: irakaslea moderatzaile edo gidari bezala aritzen den arren haurrak dira parte-hartze aktiboa dutenak.

Abestiak hiztegi berria ikasteko era aproposa dira. Errazak eta errepikakorrak direnez haurrek hiztegia barneratzea errazten dute, kantu eta dantzaren bidez hiztegi berria ikasi eta finkatzen dute (Rodriguez Lopez, 2004, 151.or).

Azkenik, *flashcard*-en erabilera gomendagarria da hiztegia erakusteko euskarri bisual bat izateaz gain, hauekin jolastuz hiztegiaren finkapena laguntzen bai dute. Lopez Jimenezek (2015, p.202) *flashcard*-en hurrengo abantailak azpimarratzen ditu:

- Ikasleentzat erakargarriak dira
- Memorizazioa errazten dute
- Maneiukorrak dira.
- Iraunkorrak dira.
- Alor ezberdinak erakusteko erabili daitezke: hiztegia, estruktura gramatikalak, fonetika.
- Neurrira egin daitezke.
- Irakasleak erraz eta azkar sortu ditzake.
- Ikasleek ere sortu ditzazkete.

6. Haur hezkuntzan ingelesaren jabetza-prozesuaren optimizaziorako programaketa

6.1. Programaketa eratzeko elementu klabeak

237/2015 Dekretuak honelako elementu hauek ezartzen ditu programaketak eduki behar dituzten minimo bezala:

- a) Ikasturtean edo zikloan zehar garatu beharreko oinarrizko zehar-kompetentziak eta diziplinazko kompetentziak eta integrazio-egoerak.
- b) Helburuak.
- c) Edukiak.
- d) Ebaluazio-irizpidearen eta lorpenaren adierazleak.
- e) Erabaki metodologikoak eta didaktikoak.”

Hori dela eta, proposatutako Unitate Didaktikoak hauek gehituko ditu, Arazo Egoera baten planteamenduaren barruan.

6.2. Arazo Egoera baten proposamena

UNITATE DIDAKTIKOA ARAZO-EGOERA BATETIK ABIATUTA: SUMMER HOLIDAYS

Irakasgaia: Ingelesa
Gaia: Summer Holidays
Maila: 5 urteko gela
Saioak: Dinamikaren beharraren arabera zehaztuko da, hilabete gutxi gora behera.
Proposamenaren justifikazioa: Egoera erreal batetik abiatu behar gara edozein unitate didaktikori hasiera emateko momentuan. Haur Hezkuntza etapa bi eremutan banatu da curricularki: 1. Norberaren nortasunaren eta ingurune fisiko eta sozialaren eraikuntzaren eremua: bertan, gizarte eta naturaren ezaguerari buruzko zientziei dagozkien haurren garapenaren berezko zenbait arlo barne hartzen ditu, hala nola, nork bere burua ezagutzea, nork bere buruaren irudia osatzea, pertsona nortasuna eraikitzeke prozesua, eta autonomiaren garapena. 2. Norberaren nortasunaren eta komunikazio eta irudikapenaren eraikuntzaren eremua: hizkuntza, matematika, artea eta motrizitatearekin lotutako gaitasunei dagozkien haurren garapenaren berezko beste arlo batzuk barne hartzen ditu. Arlo hauek errealitatea interpretatzeko eta ingurune fisiko eta sozialarekin komunikatzeko

baliatzen dira eta pentsamendu, beharrian, sentimendu eta bizipenak adieraziz eta gainerako pertsonekin elkar eraginez barneratzen dira.

Antzezlan baten prestaketaren bitartez bi eremu hauek uztartu daitezke, jolasa eta esplorazioaren bidez hurrek atzerriko hizkuntza beraien eguneroko bizitzan barneratzeaz gain, motrizitatea, autonomia eta nortasuna garatzen doazelako.

Arazo-egoera:

A. Testuingurua: Ikasturtea bukatzen ari da eta oportetara joan baina lehen jaialdi bat egingo da eskolan. Urtean zehar egin eta ikasi duguna gurasoei erakusteko aukera da. Bost urteko gelakook ere parte hartu nahi dugu.

B. Arazoa: Jaialdian parte hartu nahi dugu gurasoei erakusteko zenbat ingelesa ikasi dugun urtean zehar. Nola ahal diegu hau erakutsi?

C. Helburua: Ingeleseko ipuin bat antzeztea eskolako jaialdian.

Zeregina:

Kurtso amaierako jaialdian parte hartzeko antzerki bat prestatzea.

Oinarrizko gaitasunak:

A. Zeharkakoak:

- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako eta komunikazio digitalerako konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ekimen eta espiritu ekintzailerako konpetentzia.
- Norbera izaten ikasteko konpetentzia.

B. Diziplinari dagozkionak:

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Konpetentzia sozial eta zibikoa.
- Arterako konpetentzia.
- Konpetentzia motorra.

Helburu didaktikoak:

-«Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko helburuak:

- Ohartzea norbera pertsona berezia dela eta nork bere buruaren gaineko irudi orekatu eta positiboa osatzea, norberaren nortasuna eraikitzeko.
- Gorputza kontrolatzeko bidea urratzea, zentzumen-pertzepzioa lantzea eta testuinguruaren ezaugarrietara doitzea mugimenduaren tonua, oreka

eta koordinazioa, ekintzetan dituen ahalmenak eta mugak deskubritzeko.

- Errespetu, laguntza eta lankidetzako jarrerak eta ohiturak lantzea, norberaren jokabidea erregulatu eta norberaren eta gainerako pertsonen beharrietara egokitzeko, eta sumisio nahiz nagusitasuneko jarrerak baztertzea.
- Arian-arian, gizartean jokatzeko oinarrizko jarraibideak barneratzea eta norberaren portaera jarraibide horietara moldatzea, gero eta modu egoki eta orekatuagoan.
- Haurraren bizi-ingurunean egiten diren bertako eta kanpoko festak, tradizioak eta ohiturak ezagutzea eta haietan parte hartzea, haiekin gozatu eta nortasun-zeinu diren aldetik balioesteko.

-«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko helburuak:

- Hizkuntza askotarikoen komunikazio-tresnak eskuratzeko bidea egitea eta tresna horiez gozatea, norberaren egoera pertsonal, fisiko eta sozialeko beharrietara, sentimenduak eta bizipenak adierazi eta azaltzeko. Ahozko hizkuntza arian-arian erabiltzea eta balioestea norberaren portaera eta elkarbizitza erregulatzeko. Gainerako haurren eta helduen mezuak ulertzea eguneroko bizitzako egoeretan, eta hartu-eman horietako arauak ikastea, komunikatu nahi dena interpretatzeko
- Hizkuntza ofizialetan eta ingurunean hizkuntza askotarikoetan komunikatzeko jarrera irekia izatea, beste errealitate eta kultura batzuk deskubritu eta errespetatzeko.
- Atzerriko hizkuntza bat komunikazio-xedez erabiltzen hastea, ikasgelako egoera normaletan parte hartzeko.
- Arte-produkzioetan (ikus-entzunezkoen, teknologiaren, antzerkiaren, musikaren eta, besteak beste, gorputzaren bidez sortutako produkzioetan) parte hartzea, askotariko teknikak erabilita, komunikazio-aukerak arakatu eta kultura bera ulertzen hasteko.

Edukiak:

- «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko edukiak:
 - Jolasaren bidez (jolas motor, zentzumenezko, sinboliko eta arautuen bidez) arakatzea ingurunea. Disfrutatzen eta harremanak izateko bitarteko gisa balioestea jolasa.
 - Jolas sinbolikoaren bidez, egoera errealak edo irudizkoak eta pertsonaiak antzeztea.

- Lanak egitean, ekintzen sekuentzia planifikatzea; eta antolatzeke, konstantea izateko, arreta

jartzeko, ekimena izateko eta ahalegintzeko ohiturak hartzea.

- Norberaren lana balioestea eta akatsak ekintza hobetzeko bidea direla aitortzea.
- Laguntza eskatu eta onartzea hura premiazkoa duenean. Gainerako pertsonen laguntza-jarrerak balioestea.
- Konfiantza izatea norberaren ekintza-ahalmenean eta jolasetan parte hartzea eta saiatzea.
- Haurrek harreman orekatuak izatea elkarren artean. Estereotipo eta aurreiritzi sexista batzuk identifikatzea eta baztertzea.
- Norberak egiten dituen eta ingurunean egiten diren jarduera soziokulturalak balioestea eta

horietan parte hartzea; norberaren nortasun-zeinuetako batzuk ezagutzea.

- Ingurune naturaleko fenomenoak (gau eta egunen segida, euria, etab.) behatzea eta gizakien bizitzan duten eraginaz ohartzea.
- Naturaren eta izaki bizidunen gaineko jakin-mina, interesa eta errespetua izatea. Pertsonen zaintzaren gainean duten arduraz jabetzea eta jarrera kritikoa izatea ingurunean egiten diren jarduera kaltegarriekiko.
- Teknologia gailuak erabiltzen hastea, ikasten eta komunikatzen laguntzeko.

-«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko edukiak:

- Ahoz adierazitako testu errazak ulertzea: deskribapenak, kontakizunak, ipuinak, abestiak,

errimak, esaera zaharrak, asmakizunak, etab.

- Informazio, beharrian, emozio eta gogoak hitzen bidez adierazi eta azaltzea eguneroko bizitzako egoeretan.
- Ahozko adierazpenetan, gero eta egokitasun handiagoz erabiltzea lexikoa, sintaxi-egiturak, intonazioa, keinuak eta ahoskatzea.
- Sormena adieraztea hizkuntzaren ahozko erabilera egiten duten jolasetan, ondo pasatu eta

ikasteko.

- Hizkuntzak eta dialektoak erabiltzeko interesa izatea eta haiek begirunez begiratzea.
- Atzerriko hizkuntzan egiten diren ahozko elkarrizketetan parte hartzea, komunikazioko errutina eta egoera arruntetan.
- Literatura-testu errazak dramatizatzen parte hartzea.
- Atzerriko hizkuntzan dauden abestien, ipuinen, olerkien edo errimen zatiak entzutea, haien mezu orokorra ulertzea, buruz ikastea eta errezitatzea.
- Dramatizazio eta imitazioko jolasetan, dantzetan eta gorputz-adierazpena darabilten bestelako jolas-jardueretan parte hartzea.

- Gainerako pertsonen adierazpen, azalpen eta antzezpenekiko interesa eta begirunea izatea.
- Proiektu kolektiboak egiten parte hartzea eta inguruneko arte-ekoizpenen gaineko interesa izatea.
- Soinu eta erritmo errazak sortzea melodiak edo beste elementu batzuk (testuak, irudiak, etab.) interpretatzeko.

Jardueren sekuentzia:

A. Lehen fasea:

1. Jarduera: “Summer song for kids -The singing Walrus” entzun eta abestu, bertan agertzen diren ekintzak mimikaz eginez.
2. Jarduera: “What do we do on summer?” Flash card-en laguntzarekin hiztegia ikasi.
3. Jarduera: “Let’s go on holiday” antzeztuko dugun ipuina irakurri.

B. Garapen-fasea:

4. Jarduera: Flash card-en bitartez ipuinean agertzen den hiztegia ikasiko dugu jolas ezberdinekin: “Listen and point”, “Fishing”, “Match the pair”...
5. Jarduera: Umeei aurreko oporretako argazki bat ekartzea gelara, honekin horma irudi bat egin (nora joan ziren, zeinekin eta zer gustatu zitzaien gehien) eta azken oporretan zer egin zuten azaltzea bestei.
6. Jarduera: “Let’s go on holiday” antzeztuko dugun ipuina koloreztatu.
7. Jarduera: “Who is going to be who?” Antzezlaneko paperak banatu ikasleen artean asanblada batean.
8. Jarduera: Zabor poltsa eta gometsekin antzezlaneko mozorroak prestatu.
9. Jarduera: Kartulinak, paper marroia eta kolore desberdinetako margoak erabiliz antzezlanerako dekoratua prestatu.
10. Jarduera: Antzerkia ensaiatu.

C. Aplikazio- eta komunikazio-fasea:

12. Jarduera: Antzerki ezberdinen kartelak ikusi eta hauen ezaugarriez eztabaidatu, gure kartel propioak eduki behar dituen elementuak identifikatzeko.
13. Jarduera: Gure antzerkirako kartelak egin.
14. Jarduera: Gure emanaldiko kartelak eskolan zehar itsatsi.

D. Orokortzea eta transferentzia:

15. Jarduera: Antzerkia antzeztu eskolako jaialdian.

Ebaluazioa:

A. Adierazleak:

- «Nortasunaren eraikuntza eta ingurune fisikoaren eta sozialaren ezaguera» eremuko adierazleak:

- Gero eta gehiago kontrolatzen du gorputza, bai mugimenduan (joan-etorrietan, ibiltzean, korrika egitean, jauzi egitean, etab.), bai geldirik dagoenean (oreka, gorputz-jarreraren kontrola, etab.).
- Espazioak, materialak eta tresnak, teknologikoak barne, koordinazio eta kontrol egokiz erabiltzen ditu, eguneroko bizitzako lanak egiteko.
- Gauza berriak egiteko ekimena du eta bere disfrutatu egiten du bere aurrerapenekin.
- Arian-arian, estrategia egokiak erabiltzen ditu frustrazio-egoerak bideratzeko.
- Jolasetan eta taldearen proposamenetan gogoz parte hartzen eta laguntzen du.
- Arian-arian, sumisio eta nagusikeriazko jarrerak baztertzen ditu.
- Nolabaiteko autonomiaz egiten ditu ibilbideak eta jarduerak, horiek maiz egiten dituen lekuetan.
- Ezagutzen ditu ingurunean egiten diren kultura-adierazpen batzuk.

-«Nortasunaren eraikuntza eta komunikazioa eta adierazpena» eremuko adierazleak:

- Askotariko komunikazio-estrategiak erabiltzen ditu (hitzezkoak, gorputzaren erabilera, musika, etab.) bere beharrianak, emozioak, bizipenak, sentsazioak eta gogoak adierazteko.
- Ahozko hizkuntza erabiltzen du egoera askotan eta solaskide ugariarekin komunikatzeko, gizarte-arau batzuk betez (besteari entzunez, solaskideari begiratu, hitz egiteko txanda betez, etab.).
- Gogoz entzuten ahozko testu askotarikoak (mezuak, kontakizunak, literatura-ekoizpenak, deskribapenak, azalpenak, informazioak, etab.), eta ulertu egiten ditu.
- Atzerriko hizkuntzan egindako jardueretan parte hartzen du.
- Arian-arian, idatzizko hizkuntzaren euskarriak erabiltzen ditu (liburuak, aldizkariak, egunkariak, ordenagailuak, kartelak, etab.), komunikatzeko, informatzeko eta gozatzeko.
- Gorputzaren, musikaren, teknologiaren eta ikus-entzunezkoen hizkuntzak eta plastikaren material, tresna eta tekniken adierazpen-ahalmenak probatzen eta esploratzen ditu.
- Musikako, gorputz-adierazpeneko eta/edo adierazpen plastikoko jardueretan parte hartzen du, banaka nahiz taldean.

7. Emaitzak eta ondorioak

Atzerriko hizkuntza baten jabetze prozesua planteatzeko garaian argi eduki behar da ama hizkuntzaren erritmoa jarraitzea beharrezkoa dela. Haur Hezkuntzako haurren eboluzio linguistikoa kontuan hartuta planteatu beharko da atzerriko hizkuntzaren irakaspena; bai ama hizkuntza bai atzerriko hizkuntza komunikazio egoeretan ikasten direla ahaztu gabe.

Hizkuntza bat ikasteko garaian, jabetze prozesu hau era natural eta inkontziente batez ematea da aproposena, haurren garapena bere osotasunean kontuan hartuta. Haur Hezkuntzako haurren adimena, izaera, gaitasuna eta motibazioa kontuan hartu behar dira ikasketa esanguratsua ahalbidetzeko.

Ingelesaren jabetze prozesua marko komunikatibo baten barruan egon behar da txertatua. Egoera komunikatiboek atzerriko hizkuntza era natural batez ikaspena bermatzen dute, bizitza errealekin lotura duten heinean. Metodologia komunikatiboaren barruan txertatzen den proiektuen bidezko lanak jardueretan zentratutako lanaren metodologia uztartzeaz gain haurren interesa eta motibazioa pizten du. Bizitza errealeko arazo egoera batetik abiatuz, ikasleak beraien jabetze prozesuko protagonistak izango dira proposatutako buruhaustea beraien kabuz argitzeko jarduera ezberdinak eginez. Jarduera hauek alde tematiko eta linguistikoak errespetatu beharko dituzte. Proiektuaren emaitza ekoizteko prozesuan, ingelesaren jabetze prozesua eta honen erabilpenaren normalizazioa bultzatzen da.

Irakasleak proiektuan gidari papera badu ere, estrategia egokiak erabili behar ditu bere ikasleen ingelesaren jabetze prozesua ahalbidetzeko. Estrategia hauekin bat egiten duten baliabideen erabilpen egokia funtsezkoa izango da.

Lan honetan egiten den Unitate Didaktikoaren proposamena haurretik azaldutakoa uztartzen du. Arazo egoera batetik abiatzen da, proiektuen bidezko lanari esker jabetze prozesu integral bat ematen delako premisa kontuan hartuz.

Bizitza errealeko egoera bat abiapuntu bezala hartua izan da, kurtso amaierako jaialdian parte hartzea kasu honetan. Ikasleei erronka bat proposatzen zaie: antzezlan bat antzeztea izango dute helburu eta xede hori betetzeko modo autonomo batean jarduera ezberdinak egin beharko dituzte. Antzezlan baten prestaketak baliabide didaktiko ezberdin askoren erabilpena posibilitatzen duenez, prozesua dinamikoa da eta haurren interesa mantentzea laguntzen du. Abesti, ipuin, jolas, eskulan eta jarduera ezberdinei esker haurrek bere egunerokotasunean ingelesa uztartzeko aukera dute, egoera naturalen bidez atzerriko hizkuntza ikasi, finkatu eta erabiltzeko aukera emango bai die proiektu honek.

Gradu amaierako lan bat egiteko garaian ohikoa da hainbat mugekin topatzea, baita gaiari buruz ikertzen jarraitzeko gogoia piztea. Lan honen prospektiba aproposena lan honetan aurkeztu diren oinarri teorikoak jarraitzen dituen Unitate Didaktiko bat egin beharrean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko bost urteko haurrentzat zuzenduta dagoen kurtso osoko Programaketa Didaktiko bat sortzea izango litzateke. Ondoren, Programaketa Didaktikoa praktikan jarriko zen kasu azterketa bat egiteko asmoarekin.

Pertsonalki, lan honi esker metodologia komunikatiboa eta proiektuen bidezko metodologia hobeto ezagutzeko balio izan dit, arazo egoeren bidez planteatutako Unitate Didaktikoek eskaintzen dituzten aukera guztiak ikusi bai ditut. Ingelesaren jabetza prozesua era natural batean ahalbidetzeaz gain, estrategia eta baliabide didaktiko anitzak erabiltzeko aukera ematen dutela ikusi dut.

Ikasketa esanguratsu bat lortzea baldin bada irakaslearen helburua, ingelesaren jabetza prozesua era berezko batez eman behar da eta proiektuen bidezko lana da honetarako metodologiarik aproposena.

8. Erreferentzia bibliografikoak


- 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa. EHAA 2016/01/15.
- Acaso, M. (2013) Reduolución. Barcelona: Paidós.
- Berritzegune Nagusia. Arazo-egoerak ezaugarriak. Haur Hezkuntza ereduak.
- Campbell, D.; Eknijom, P.; Haque, A.; Smith, L. E. (1983). English in international settings: problems and their causes. *Readings in English as an international language*. 35-47. L. E. Smith (Ed.). Oxford:Pergamon Press.
- Díaz Barriga Arceo, F. eta Hernández Rojas, G. (2010). Estrategias docentes para un aprendizaje significativo una interpretación constructivista. Ciudad de México: McGraw-Hill.
- Dunn, O. (1985). Beginning English with Young Children. London:Macmillan Publishers.
- García, M., Prieto, C. eta Santos, M.J. (1994). El enfoque por tareas en la enseñanza/aprendizaje del francés lengua extranjera: una experiencia para la reflexión. *Comunicación, Lenguaje y Educación*, (24), 71-78.
- Gardner, H. (1983): Inteligencias múltiples. Buenos Aires: Paidós
- Kincheloe, J.L, Steinberg, S.R. eta Gresson, A.D. (1996). Measured lies: The bell curve examined. New York: St. Martin's Press.
- Krashen, S. D. y Terrell T. D. (1983). The Natural Approach. Pergamon.
- López Pérez, M. (2009). Estrategias y enfoques metodológicos del uso comunicativo en las lenguas extranjeras: aplicación teórico-práctica del paradigma pragmático. *Tejuelo*, (7), 57-76.
- Luque, G. (2000). Aprendiendo inglés mediante historias. Servicio de Publicaciones de la Universidad de Jaén.
- Martín Sánchez, M. A. (2009).Historia de la metodología de enseñanza de lenguas extranjeras. *Tejuelo*, (5), 54-70.
- Mayor Sanchez, J. (1989). El problema de la adquisición del Lenguaje. *Psicología y educación infantil*. (138-161) VV.AA. Madrid: Santillana

- Mayoral-Valdivia, P. J. (2016). Estrategias didácticas para la enseñanza del idioma inglés a niños de preescolar: el caso de un colegio en Colima, México (Doktoregotza Tesia). Tlaquepaque, Jalisco: ITESO.
- Morris, J. eta Segura, R (). Materiales y recursos para la enseñanza de una lengua extranjera en Educación Infantil. *Enseñanza - Aprendizaje de las lenguas extranjeras en edades tempranas*. (195-217). Consejería de Educación y Cultura de Murcia.
- Murado Bouso, J. L. (2010). Didáctica de inglés en educación infantil. Métodos para la enseñanza y el aprendizaje de la lengua inglesa. Vigo: Ideaspropias Editorial.
- Parra, J.M. (2011). Didáctica de la Educación Infantil. Madrid: Garceta Grupo.
- Ramos, F. eta Vadillo, J. (2007). Cuentos que enseñan a vivir: Fantasía y emociones a través de la palabra. Madrid: Narcea.
- Rodríguez Lopez, B. (2004). Técnicas metodológicas empleadas en la enseñanza del inglés en Educación Infantil. Estudio de caso. *Didáctica (Lengua y Literatura)*, (16), 145-161.
- Selva Lopez, F. (2010). El teatro en la escuela: Guía para los implicados en la educación y formación del menor. Malaga: Arguval.
- Tragante, E. eta Muñoz, C. (2000). La Motivación y su Relación con la Edad en un Contexto Escolar de Aprendizaje de una Lengua Extranjera. *Segundas Lenguas. Adquisición en el aula*. (82-107) Muñoz, C. (ed.), Barcelona: Ariel Lingüística.
- Yule, G. (1998). El lenguaje. Cambridge: Cambridge University Press.
- Wattellier, L. (2007) ¿Qué metodología utilizar en un aula de FLE? *La revista de educación: Aldadis.net*, (12).


Eranskina I




LET'S GO ON HOLIDAY!




- Let's go on holiday...




House - Palm trees




Flower - Flower



Flower - Flower



Flower - Flower



...to the beach!

Two children are playing football.







- Oh dear, oh dear,
I don't want to be here!

- Let's go to the river!

A naughty fish is playing with the water.





- Oh dear, oh dear,
I don't want to be here!

- Let's go to the mountain!


Two bears are playing with the snow





- Oh dear, oh dear,
I don't want to be here!




The cats are running behind the mice!




- Oh dear, oh dear,
I don't want to be here!





- Let's go home!




www.









- I want to be here!

